Artículo 5. Están obligadas al pago de la tasa aquellas personas que utilicen las instalaciones o servicios de la Residencia. Dicha obligación de pago deberá materializarse por sí o por representante legal en su caso.

Era berean, Egoitzari tasa ordaintzera boluntarioki behartu diren pertsonei ere eskatu ahal zaie tasa hori, eta horretarako dagokion dokumentua sinatuko da, Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteagatiko eta laguntza jasotzeagatiko tasa kudeatzeko eta kobratzeko sistemaren araudiaren V. Eranskinean zehaztutako ereduaren arabera.

Así mismo, resulta exigible la tasa a las personas que voluntariamente se hayan obligado al pago de la misma frente a la Residencia, suscribiendo a tal fin el oportuno documento, conforme al modelo que se especifica en el Anexo nº VI de Reglamento regulador del sistema de gestión y cobro de la tasa por asistencia y estancia en la residencia municipal del Sagrado Corazón de Jesús de Getxo.

V.- ZERGA-KUOTA

V.- CUOTA TRIBUTARIA

6. artikulua.- Dagokion tarifak eratzen du zerbitzua egiten den modalitate bakoitzaren zerga-kuota, ordenantza honen eranskinean agertzen dena.

Artículo 6.- Constituye la cuota tributaria de cada una de las modalidades en que se materialice el servicio, la tarifa respectiva, que figura en el Anexo de esta Ordenanza.

VI- SORTZAPENA

VI.- DEVENGO

7. artikulua.- Tasa sortzen da eta

Artículo 7.-Se devenga la tasa y nace la

ordaintzeko betebeharra eratzen da eskatzailea egoitzan sartzen denetik, edo ordenantza honetan jasotako zerbitzuren bat ematea eskatzen denetik.

obligación de pagar desde que se produce la entrada del solicitante en la Residencia, o se solicita la prestación de alguno de los servicios contemplados en esta Ordenanza.

VII.- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

VII.- LIQUIDACIÓN E INGRESO

8. 1 artikulua.- Likidazioak egingo dira, eta tasa hil bakoitzeko lehen astean ordainduko da.
2.- Fotokopien zerbitzua horiek ematean ordainduko da.
3.-Zerga-kuota egunetan zatikatuko da ordainketa berrien kasuan, heriotzengatiko baja bada edo plaza BFArena izatera igarotzen bada.
4.- Baja boluntarioagatik uzten bada egoitza, hilabete bati dagokion likidazioa egingo da.

Artículo 8.1.-Se practicarán las liquidaciones y se ingresará la tasa dentro de la primera semana de cada mes.
2.- El servicio de fotocopias será abonado contra entrega de las mismas.
3.- La cuota tributaria se fraccionará por días en los casos de nuevo ingreso, o baja por fallecimiento o por pasar a plaza de la DFB..
4.- Si se abandonase la Residencia por baja voluntaria se realizará la liquidación correspondiente a un mes.

VIII.- BALIABIDERIK EZ IZATEAGATIK SORTU DIREN ETA ORDAINDU EZ DIREN TASENTZAKO BERME BEREZIA

VIII.- ESPECIAL GARANTÍA PARA TASAS DEVENGADAS E IMPAGADAS POR INSUFICIENCIA DE MEDIOS

9.1. artikulua. Sortutako tasa osorik edo partzialki ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten erabiltzaileen kasuan, sartzean edo egonaldian bat-batean sortu bada, Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteagatiko eta laguntza jasotzeagatiko tasa kudeatzeko eta kobratzeko sistemaren araudian jasotzen diren baldintzetan (Ordenantza honen xedapen gehigarria), araudi horretan aurreikusitako zorra aitortzeko prozedura aplikatuko da, eman diren eta ordaindu ez diren zerbitzuengatik zor diren zenbatekoak zorrotz kontrolatuz eta jarraituz. Hori horrela izango da zorra deuseztatu dela bermatzeko, ondarearen edo

Artículo 9.1.- Para los casos de personas usuarias que no dispongan de recursos económicos suficientes para pagar total o parcialmente la tasa devengada, ya sea en el momento del ingreso o de manera sobrevenida durante su estancia, y ello en los términos que recoge el el Reglamento Regulador del Sistema de Gestión y Cobro de la Tasa por Asistencia y Estancia en la Residencia Municipal del Sagrado Corazón de Jesús de Getxo ( Disposición Adicional de la presente Ordenanza ); se aplicará el procedimiento de reconocimiento de deuda previsto en dicho reglamento, con estricto control y seguimiento de las cantidades adeudadas por los servicios prestados y no abonados, y

onuradunaren likidatu gabeko ondasunen aurka, edo etorkizuneko ondare edo mota guztietako ondasun posibleen aurka, edo onuradunaren aurka.

con la finalidad de garantizar la cancelación de dicha deuda contra el patrimonio o bienes no líquidos presentes del beneficiario, o contra el posible patrimonio o bienes de todo tipo futuros, así mismo del beneficiario.

9.2 artikulua. 2001-12-31 baino lehen egoitzan sartutakoei eta baliodun izaera dutenei, nahiz eta printzipioz baliabide ekonomiko nahikoak eduki, momenturen batean ez badute tasa osorik ordaintzeko baliabiderik, aurreko atalean ezarritakoa aplikatuko zaie.

Art. 9.2.- Aquellas personas ingresadas antes del 31.12.2001 y que tengan la condición de válido y que, aun teniendo recursos económicos suficientes en un principio, llegasen en algún momento a no disponer de recursos para abonar la totalidad de la tasa, se les aplicará lo dispuesto en el apartado anterior.

Halaber, 2001-12-31 baino lehen egoitzan sartutakoei eta laguntza behar dutenei, nahiz eta printzipioz baliabide ekonomiko nahikoak izan, momenturen batean ez badute tasa osorik ordaintzeko baliabiderik, 91. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

Así mismo, aquellas personas ingresadas antes del 31.12.2001 y que tengan la condición de asistido y que, aun teniendo recursos económicos suficientes en un principio, llegasen en algún momento a no disponer recursos para abonar la totalidad de la tasa, se les aplicará lo dispuesto en el artículo 9.1.

2002-01-01etik aurrera egoitzan sartu direnei, nahiz eta printzipioz baliabide ekonomiko nahikoak izan, momenturen batean ez badute tasa osorik ordaintzeko baliabiderik, 9.1. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

Para aquellas personas ingresadas a partir del 1.01.2002 que, aun teniendo recursos económicos suficientes en un principio, llegasen en algún momento a no disponer de recursos para abonar la totalidad de la tasa, se les aplicará lo dispuesto en el artículo 9.1

IX.-XEDAPEN GEHIGARRIA

Zerga-ordenantza hau indarrean dagoen Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteagatiko eta laguntza jasotzeagatiko tasa kudeatzeko eta kobratzeko sistemaren araudiarekin osatuko da, hala badagokio, erakunde horren Batza Artezkariak onartutakoa edo onartu ahal duena.

IX.- DISPOSICIÓN ADICIONAL

La presente Ordenanza Fiscal se complementará con el Reglamento Regulador del sistema de gestión y cobro de la tasa por asistencia y estancia en la Residencia Municipal del Sagrado Corazón de Jesús de Getxo que, en su caso, pueda haberse aprobado o llegue a aprobarse por la Junta Rectora de dicho Organismo.

X.-AZKEN XEDAPENA

X.- DISPOSICIÓN FINAL

Zerga-ordenantza hau eta bere

La presente ordenanza fiscal y su

eranskina 1999ko irailaren 23an onartu ziren, 2000ko irailaren 29an, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 2007ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean. Horrez gain, indarrean egongo dira aldatzea edo indargabetzea erabakitzen denera arte.

I. ERANSKINA. TARIFA

Ordenantza honetan araututako tasa ezartzeko, egoera hauek hartuko dira kontuan:

A) LAGUNTZAGATIK ETA EGONALDIAGATIK

1.- 2001-12-31RA ARTE EGON DIREN PERTSONENAK:

BALIODUNAK 664,62 euro hilean.
LAGUNDUTAKOAK 1.486,89 euro hilean.

2.- 2002-01-01ETIK AURRERA EGON DIREN PERTSONENAK:

TASA BAKARRA 2.011,76 euro hilean

Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteko Bizkaiko Foru Aldundiaren banakako diru-laguntza jasotzen duten egoiliarrek, eta lankidetza hitzarmenean euren egonaldia jasota dutenek, aipatutako foru erakundeak bere araudietan horri buruz xedatutakoa beteko dute. Kontzeptu hauetan ordaindu beharreko zenbatekoak ez dira Ordenantzak beste egoiliar guztientzat onartutakoak baino txikiagoak.

B) BESTE ZERBITZU BATZUK

Anexo han sido aprobadas en fecha 23 de septiembre de 1.999, 29 de septiembre de 2000, 28 de septiembre de 2001, 28 de noviembre de 2003, 26 de noviembre de 2004, 25 de noviembre de 2005, 22 de diciembre de 2006, se publicará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia y entrarán en vigor el 1 de enero del 2007 y seguirán en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO I. TARIFA

Para la fijación de la Tasa regulada en esta Ordenanza se tendrán en cuenta las siguientes situaciones :

A) POR ASISTENCIA Y ESTANCIA

1.-DE LAS PERSONAS INGRESADAS HASTA EL 31-12-2001:

VALIDOS 664,62 Euros/ mes
ASISTIDOS 1.486,89 Euros/mes

2- DE LAS PERSONAS INGRESADAS DESDE EL 1-1-2002

TASA ÚNICA 2.011,76 Euros/mes

Tanto los residentes que perciban de la Diputación Foral de Bizkaia la subvención individual correspondiente para el sufragio de su estancia en la Residencia Municipal Sagrado Corazón de Jesús de Getxo como aquellos que su estancia esté recogida en el convenio de colaboración se atendrán a lo dispuesto al respecto por la referida institución foral en sus normativas reguladoras. Las cuantías a abonar en estos conceptos no son inferiores a las aprobadas por la Ordenanza para la generalidad de los residentes.

B) OTROS SERVICIOS

ALDI BATERAKO EGONALDIETARAKO egoitzan sartzea eskatzen dutenek eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitzen zerbitzu publikoaren barne ez daudenek 2.079,59 euro ordainduko dute.

JANTOKI ZERBITZUA:
Gosaria: 1,40 euro.
Bazkaria: 5,10 euro.
Afaria. 2,80 euro.

C) Fotokopia zerbitzua

Fotokopiak A4-Orrialde bat 0,10 euro
Fotokopiak A4-Bi orrialde 0,15 euro
Fotokopiak A3-Orrialde bat 0,15 euro
Fotokopiak A3-Bi orrialde 0,15 euro >>

2.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

3.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki oholean, 30 egun naturalez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

4.- Jendaurreko erakusketa hori BAOan iragarriko da. Iragarkia aipatutako aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea

Las personas que solicitan ingreso para ESTANCIAS TEMPORALES y no pertenecen al servicio público de Residencias de la Diputación Foral de Bizkaia abonarán 2.079,59 €.

SERVICIO DE COMEDOR:
Desayuno: 1,40 Euros
Comida: 5,10 Euros
Cena: 2,80 Euros

C) Servicio de Fotocopias

Fotocopias A4-1 cara 0,10 Euros
Fotocopias A4-2 caras 0,15 Euros
Fotocopias A3-1 cara 0,15 Euros
Fotocopias A3-2 caras 0,15 Euros >>

2º.- Dicho texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

3º.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

4º.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la

zenbatzen. Gainera, jendaurrean erakusteko iragarkiak argitaratuko dira egunkaririk irakurrienetako batean.

publicación del correspondiente anuncio en el referido boletín, publicándose además anuncios de la exposición pública en uno de los diarios de mayor difusión.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**13.- “CASERÍO KORTIÑE” DERITZAN ERAIKINA, PEÑA SANTA MARINA KALEA 10, 10-“KORTIÑE” URBANIZATZEKO GAI DEN LURZORUKO SEKTOREARENTZAT IZAPIDETUTAKO BIRZATIKETA PROIEKTUAREN ONDORIOZ SORTUTAKO RU-I PARTZELAN, ORDEZTEKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

**13.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO DENOMINADO “CASERÍO KORTIÑE”, SITO EN EL Nº 10 DE LA CALLE PEÑA SANTA MARINA, PARCELA DE RESULTADO RU-I DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN TRAMITADO PARA EL SECTOR DE SUELO APTO PARA URBANIZAR 10-“KORTIÑE”.**

Proposamena irakurri ondotik, Iñaki Gamero hasi da hitz egiten. Adierazi du PP abstenitu egingo dela, tristatu egiten duelako balio historikoa izan dezakeen baserri bat desagertzeak. Aitortu du proposamena legezkoa dela eta izapideak egoki bideratu direla. Gogora ekarri du duela gutxi ondarea babesteko mozio bat onartu zela, batez ere, hirigintza plangintzarekin bat ez datozen eraikinak direla-eta. Udalari egotzi dio errua, zabarkeriaz jokatu duelakoan, izan ere, eraikinak udal babesa baitzuen. Ondorioz, uste du autokritika egin behar dela, mota honetako eraikinei eusteko bideak bilatzeko.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Iñaki Gamero que indica que el PP se va a abstener porque le entristece que desaparezca un caserío que pueda tener un valor histórico. Reconoce que la propuesta es legal y la tramitación correcta. Recuerda que hace poco se aprobó una moción en defensa del patrimonio sobre todo en aquellos edificios disconformes con el planeamiento. Culpa al ayuntamiento de desidia ya que el edificio contaba con una protección municipal y se debe realizar una autocrítica para buscar vías de mantenimiento para este tipo de edificaciones.

Arantza Gutiérrezek esan du EH Bildu ados dagoela Iñaki Gamerok esandakoarekin, baina aurkako botoa emango dutela, ondare horrekin lotuta egin den kudeaketarengatik. Ez daki eraikina hondatu den jabeek

Arantza Gutiérrez manifiesta la conformidad de EH Bildu con lo manifestado por Iñaki Gamero pero que votarán en contra por la gestión realizada respecto a este patrimonio. Desconoce si la ruina ha sobrevenido

zabarkeriaz jokatu dutelako edo eraberritzeko lanak baimentzeko administrazioak izan duen ezintasunarengatik, baina, edonola ere, bere ustez, udalaren jardunbidea kritikagarria da. Baserri bat galtzea ez da behin bakarrik gertatu, eta horregatik proposamenak egin dizkiote Udalbatzari, balio kulturalak dituzten baserriei eustearen alde egiteko. Informazio batzordean esan zieten, ikuskatze teknikoen ondorioz, eraikin horien benetako egoera zein zen jakiteko modua izango zela, eta, beraz, uste du horrek egoera hobetuko duela. Amaitzeko, adierazi du balio kulturala duten erakinei eustea lagundu eta babestu behar dela.

por la desidia de los propietarios o por la imposibilidad administrativa para autorizar reformas, pero en todo caso la actuación municipal es criticable. La pérdida de este caserío no es la única y por ello han realizado propuestas al Pleno en defensa del mantenimiento de los caseríos con valores culturales. En la comisión informativa se les dijo que con motivo de las inspecciones técnicas se iba a poder saber el estado real de estas edificaciones, lo cual podrá mejorar la situación. Finaliza manifestando que hay que apoyar el mantenimiento de las edificaciones con valor cultural.

Enrique Pradak adierazi du GUK bat datorrela lehenago esandakoarekin, eta etorkizunean halakorik ez gertatzeko eta ondare historiko-artistikoa eta monumentala babesteko neurriak eskatu ditu.

Enrique Prada manifiesta que GUK se suma a lo indicado y solicita medidas para que estas situaciones no se den el el futuro y se proteja el patrimonio histórico-artístico y monumental.

Santiago Sainzek azaldu du kontrako botoa emango duela, kultura ondarea hiltzen utzi delako protesta gisa. Era berean, ondare horri eusteko egiten ari dena eskertu du.

Santiago Sainz indica que votará en contra como protesta de que se haya dejado morir el patrimonio cultural y agradece lo que se está realizando en el mantenimiento de este patrimonio.

Joseba Arreguik, Gobernu Taldearen izenean, adierazi diren argudioen sinpletasuna deitoratu du, hirigintza konplexua baita eta haren printzipioak ezagutu behar baitira. Adierazi du baserri horiek sailkapen bat duen lurzoru batean daudela eta horrek bere eraginak dituela. Kritikatu du, antolamendutik kanpoko eta hirigintza plangintzarekin bat ez datozen eraikinen tratamendurako izan ezik, oposizioko talde bakar batek ere ez duela ezer planteatu. Adierazi du ondarea inbentarioan bilduta eta babestuta dagoela araudi orokorraren

Joseba Arregui, en nombre del equipo de gobierno, lamenta la simplicidad de los argumentos que se han manifestado ya que el urbanismo es complejo y hay que conocer sus principios. Indica que esos caseríos están en un suelo que tiene una clasificación y ello tiene sus efectos. Critica que es excepto para el tratamiento de las edificaciones fuera de ordenación y disconformes con el planeamiento ningún grupo de la oposición ha planteado nada. Manifiesta que el patrimonio está inventariado y protegido según la normativa general y que además el

arabera. Gainera, Getxoko HAPOk udal babeserako mota berri bat sortu zuen, 200dik gora eraikini eragiten diena, haien balioa katalogatu da eta orain hari dagokion babes araudi bat garatu behar da. Gehitu du babes orok berekin dakartzala zortasunak eta mugak, etxebizitzetan jardun ahal izateko. Gogorarazi du proposamena ez dela aurriari buruzkoa, hori lehenago landu baita, eta horregatik planteatzen dela xehetasun-azterketa. Udalbatzak ezezkoa eman diezaioke, nahiz eta erabaki hori legez kanpokoa izango litzatekeen, jabeek ere euren eskubideak baitituzte.

PGOU de Getxo creó una nueva modalidad de protección municipal que afecta a más de 200 edificios, que ya se ha catalogado su valor y que ahora hay que desarrollar una normativa de protección al respecto, recordando que toda protección implica servidumbres y limitaciones a la hora de actuar sobre las viviendas. Recuerda que la propuesta no trata sobre la ruina, ya que ésta se ha tratado previamente y, por eso, se plantea el estudio de detalle, que puede ser rechazado por el Pleno aunque dicho acuerdo sería ilegal porque los propietarios también tienen sus derechos.

Santiago Sainzek erantzun du baserria hiri-lurzoruan dagoela eta jabeek ez dutela HAPOren gaineko erantzukizunik. Gogora ekarri du EAJk 38 urte daramatzala gobernatzen eta aukera izan duela ondarea babesteko neurriak hartzeko. Eraikin horiei eusteko diru-laguntzak emateko aukera iradoki du.

Santiago Sainz replica que el caserío está en suelo urbano y que los propietarios no tienen la responsabilidad sobre el PGOU y recuerda al PNV que lleva 38 años gobernando y que podía haber adoptado medidas para proteger el patrimonio. Sugiere la posiblidad de que se faciliten ayudas económicas para mantenimiento de estos edificios.

Arantza Gutiérrezek esan du gai honen gaineko proposamenak planteatu dituztela. Batzordean esan zen eraikinen egoerari buruzko salaketarik gabe ezin dela jardun eta orain, ikuskatze teknikoak eginda, egoera hobetzea espero dela. Gogorarazi du eraikin horiei eusteko diru-laguntzen proposamenak onartu dituela Udalbatzak. Onartzen du errealitatea ezagutzen dutela eta ez daudela xehetasun-azterketaren kontra, baina kontrako botoa emango dutela, eraikina desagertu izana salatzeko. Amaitzeko, jakinarazi du bere taldeak hitz egiteko borondatea duela, kontu hauetan bat etortzea lortzeko.

Arantza Gutiérrez manifiesta que sobre este tema han planteado propuestas y en la comisión se indicó que sin denuncias sobre el estado de los edificio no se puede actuar y que ahora con las inspecciones técnicas espera que mejore la situación. Recuerda que se han aprobado en el Pleno propuestas de apoyo económico para el mantenimiento. Reconoce que son conocedores de la realidad y no están en contra del estudio de detalle, y su voto negativo es para denunciar la desaparición del edificio. Finaliza manifestando la voluntad de su grupo al diálogo para buscar acuerdos en estas cuestiones.

Iñaki Gamerok esan du kritika asmo on

Iñaki Gamero manifiesta que la crítica

edo positiboarekin egin dutela, denen artean egoera hobetzeko. Adierazi du Gobernu Taldeak zerbitzu tekniko batzuk dituela, baina oposizioko taldeek ez. Gehitu du udal babesa duen eraikin bat halabeharrez bideratuta egotea eraistera arazo bat dela eta errepikatu du mota horretako eraikinei babes hobea eman behar zaiela. Horrenbestez, mota horretako neurrietarako laguntza eskaini dute. Gogora ekarri du Harino Panadera erakinak –industria arkitektura arrazionalistaren erakusgarria zen–, babesik ez izateagatik, egun etxebizitzak hartzen dituela eta haren ibilbidea aldarazi dutela.

la hacen con ánimo positivo para entre todos mejorar la situación. Indica que el equipo de gobierno dispone de unos servicios técnicos que los grupos de la oposición no disponen. Manifiesta que un edificio de protección municipal se vea abocado al derribo es un problema e insiste en que hay que dar mejor protección a este tipo de edificios y ofrecen su apoyo a medidas de este tipo. Recuerda que el edificio de Harino Panadera, que era un edificio exponente de la arquitectura industrial racionalista, por falta de protección actualmente acoge viviendas alterando su trayectoria.

Enrique Pradak berriro esan du deitoragarria dela eraikin horiek galtzea eta Gobernu Taldeak oposizioari egin dion kritikak erakusten duela ez direla gai beste talde batzuen iritziak onartzeko. Gaineratu du, EAJk ia 40 urte daramatzala udal gobernuan eta eraikin asko galdu direla. Gehitu du GUK taldeak hainbat ekarpen egin zizkiela proposamen desberdinei, adibidez, terrazen ordenantzari, eta ez zirela onartu. Etxebizitzen planari ere egin zizkioten ekarpenak, baina oraindik ez dute inolako erantzunik jaso.

Enrique Prada insiste en que es un hecho lamentable la pérdida de estos edificios y la crítica del equipo de gobierno a la oposición demuestra una mala capacidad para encajar las opiniones de otros grupos y recuerda que el PNV lleva casi 40 años en el gobierno municipal y se han perdido muchos edificios. Recuerda que desde GUK se hicieron aportaciones a diferentes propuestas como la ordenanza de terrazas, que no se admitieron y también al plan de vivienda, sobre las que no han obtenido ninguna respuesta.

Joseba Arreguik erantzun du berak ez duela inor gutxietsi une bakar batean ere eta errepikatu du ez dietela araudi zehatzik eskatzen talde politikoei, baizik eta helburuak, gero araudia garatu ahal izateko. Gaineratu du kontua konplexua dela eta eraikinak babestu behar direla kontuan izanda hirigintzaren arloko araudia. Berriro esan du HAPOk handitu egin zuela legeriak exijitzen zuenaren gaineko babesa, 200dik gora eraikin babesteko irizpideak barnean hartuta, eta egin

Joseba Arregui replica que él en ningún momento ha minusvalorado a las personas y repite que no piden normativas concretas a los grupos políticos sino objetivos para luego poder desarrollar la normativa. Recuerda que la cuestión es compleja y la defensa de los edificios ha de realizarse teniendo en cuenta la normativa urbanística. Insiste en que el PGOU incrementó la protección sobre lo que la ley exigía, incorporando criterios de protección a más de 200

dela azterlan bat, zehazteko eraikin horietako bakoitzean zer den babestea merezi duena.

edificios y que ya se ha realizado un estudio que concreta qué es lo que merece proteger de cada una de esas edificaciones.

Proposamena bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 11 boto –EAJ, PSE-EE–, aurkako 5 boto –EH Bildu, Ciudadanos– eta 9 abstentzio –PP, GUK–.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 5 votos en contra, EH Bildu, Ciudadanos, 9 abstenciones, PP, GUK.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengoa erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.-
I.- IGOR ARTETXE MADARIAGA jaunak, bere izenean eta NEKANE MADARIAGA GARAY eta MATXALEN ARTETXE MADARIAGA andreen ahozko mandatari moduan, aurkeztutako xehetasuneko azterketa behin betikoz onartzea, "Kortiñe Baserria" izeneko eraikina aldatzeko. Erakin hori Peña Santa Marina kaleko 10. zenbakian dago, 10-"Kortiñe" urbanizatzeko lurzoru urbanizagarriaren sektorerako izapidetutako birpartzelazio proiektuko RU-I emaitzaren lurzatia dena, eta udalaren plangintzako arau subsidiarioak mugatuko dituztenak; hala, hasierako onarpenean aipatutako zehaztasunak aintzat hartu beharko dira.

PRIMERO.-
I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. IGOR ARTETXE MADARIAGA, en su propio nombre y como mandatario verbal de Dña. NEKANE MADARIAGA GARAY y Dña. MATXALEN ARTETXE MADARIAGA, para la sustitución del edificio denominado "Caserío Kortiñe", sito en el nº 10 de la calle Peña Santa Marina, parcela de resultado RU-I del proyecto de reparcelación tramitado para el Sector de Suelo Apto para Urbanizar 10-"Kortiñe" que delimitaran las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal, debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

II. Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

II.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

III.- Interesdunei jakinaraztea, egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi

SEGUNDO.-Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias

adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

para la ejecución de estos acuerdos.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**14.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: FADURA ALDEAN GOBELA ERREKA UBIDERATZEKO ETA PILOTALEKUAK BIRGAITZEKO LANAK.**

Iñaki Gamerok mozioa irakurri eta eskatu du mozioa uler dadila egin daitekeenaren helburu handiena bezala, jakitun izanda planteatzen denak inbertsio handiak eskatzen dituela. Argitu du mozio proposamenak aldaketetara irekita daudela, baina uste du Fadurako pilotalekuen eraikinean jardun behar dela eta sarbide berriak zabaldu, URAren lanen ondorioz.

Alvaro Gonzálezek, Gobernu Taldearen izenean, adierazi du lanak hasi direla Gobelan eta eragina izaten ari direla Getxo Kirolak erakundeak eskaintzen duen zerbitzuan. Hartara, egoera berri horri erantzuten eta, era berean, egungo zerbitzuak ematen saiatzen ari dira. Langileak euren lanaldiaren zati bat ematen ari dira egungo egoeraren konponbidearen plangintza egiten, udal teknikariekin lankidetzan jardunda. Gehitu du Getxo Kirolak erakundearen Artezkaritza Kontseiluan jarduketa guztien berri emango dela, eta horrez gain, aisiarako gune horri dagokionez, aztertzen ari diren proposamen batzuk ere azalduko dituztela, eta abar. Pilotalekuei dagokienez, gogora ekarri du orain dela 40 urte baino gehiago eraiki zituztela, itoginetarako konponbidea aurkitu dutela eta aplikatzen ari direla

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**14.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LAS OBRAS DE ENCAUZAMIENTO DEL RÍO GOBELA A SU PASO POR FADURA Y REHABILITACIÓN DE LOS FRONTONES.**

Iñaki Gamero da lectura a la moción y pide que la misma se entienda como la más amplia aspiración de lo que se pueda hacer siendo consciente que lo que se plantea supone grandes inversiones. Aclara que las propouestas de la moción están abiertas a cambios pero estima que hay que acutar sobre el edificio de los frontones de Fadura y abrir nuevos accesos con motivo de las obras de URA.

Alvaro González, en nombre del equipo de gobierno, indica que las obras en el Gobela han comenzado y están generando impacto en el servicio que oferta Getxo Kirolak y que están tratando de responder a esta nueva situación a la vez también que mantener la prestación de los servicios actuales. El personal está dedicando parte de su jornada a planificar la solución a la situación actual en colaboración con los técnicos del ayuntamiento. Indica que en el Consejo Rector de Getxo Kirolak se dará cumplida cuenta de todas las actuaciones, además de algunas de las propuestas que están en estudio respecto a este espacio de esparcimiento, etc. En cuanto a los frontones recuerda que se hicieron hace más de 40 años y que ya se ha encontrado solución a las goteras, que

frontoi osoan. Egindako proposamenak direla-eta, eraikinaren egoera errealak eta funtzionalak ez ditu onartzen. Eraikinaren egungo egoera aintzat hartuta, edo eraitsi egin beharko da – baina eraikin berriak toki asko galduko luke afektazio publikoengatik, bai metrora bai ibaietara–, edo dagoena ahalik eta gehiena aprobetxatu beharko da, hobetu nahi den erabilera antolaketaren bidez. Amaitzeko, esan du kontu honi buruzko erabakiak Getxo Kirolak erakundeari dagozkiola, eta horretarako zuzenketa transakzionala aurkeztu du. Hain zuzen, hau dio zuzenketa horrek:

*"Akordio proposamena: 1, 2. eta 3. puntuak ordezkatu ondorengoengatik.*

*LEHENENGOA.- Beharrezko neurriak ezartzea Gobela ibaiaren berbideratze prozezuan egin beharreko lanak gutxieneko eragina eukitzea Fadura instalakuntzetan zuzenean edo ez zuzenearn prestatzen edo eskeintzen diren zerbitzuetan. Kirolarien eta orokorrean publioari sarrera errazten.*

*BIGARRENA.- Frontoi, atletismo, rugby eta tenis guneko instalakuntzen planifikazio bat prestatu.*

*HIRUGARRENA.- Aurreko puntuak lortzeko beharreko pertsonen eta materialen baliabideak ematea."*

Iñaki Gamerok zuzenketa transakzionala onartu du.

Iñaki Amorrortuk hartu du hitza, GUK taldearen izenean, deitoratzeko ereduzkoa izan beharko lukeen instalazio bat bazterrera utzi izana EAJ alderdiak. Gaineratu du mozioan adierazten diren proposamenen

se está aplicando en todo el frontón. Sobre las propuestas realizadas, la situación real y funcional del edificio no las admite. Con la actual situación del edificio, o se demuele, pero la nueva edificación perdería mucho espacio por afecciones públicas, tanto a metro como a ríos, o se aprovecha al máximo lo existente con una organización de uso que se pretende mejorar. Finaliza indicando que las decisiones sobre esta cuestión corresponden a Getxo Kirolak y para ello presenta una enmienda transaccional que dice lo siguiente:

*"Propuesta de acuerdo: sustituir los puntos 1, 2 y 3 por los siguientes.*

*PRIMERO.- Que se adopten las medidas necesarias para minimizar los efectos de las obras del encauzamiento del río Gobela en todos los servicios e instalaciones de Fadura afectadas directa o indirectamente, facilitando el acceso a los y las deportistas y visitantes en general.*

*SEGUNDO.- Que se elabore una planificación de las instalaciones y servicios a prestar en toda el área de frontones, atletismo, rugby y tenis.*

*TERCERO.- Que se dote a Getxo Kirolak de los medios humanos y materiales que necesite para alcanzar los puntos anteriores."*

Iñaki Gamero admite la enmienda trasaccional.

Interviene Iñaki Amorrortu, en nombre de GUK, para lamentar el abandono del PNV de una instalación que debería de ser ejemplar, manifestando que propuestas como las que se indican en la moción llevan más de 10 años en las

antzekoek 10 urtetik gora daramatzatela Getxo Kirolak erakundeko teknikarien mahaietan, inolako neurririk hartu gabe, eta kritikatu du EAJk URAren lanen eraginak aurreikusi ez izana. Zuzenketa transakzional hau planteatu eta irakurri du:

*"Nahiz eta gogoko ditugun Alderdi Popularrak pilotalekuen eraikinerako proposatzen dituen ideiak, uste dugu ideia horiek eta, sor litezkeen beste batzuk, banan-banan eztabaidatu behar direla Getxo Kirolak erakundearen Artezkaritza Kontseiluan. Horrenbestez, gure proposamena da bigarren puntua ordeztea, beste hau jarrita:*

*Bigarrena.- Artezkaritza Kontseiluak gainbegiratuta, pilotalekuen eraikinaren mantentze eta egokitze premien azterlan zehatza egin dadila, eta bai, premien arabera, erabilera aukerena ere. Hartara, ondoren, pilotaleku horiek txukuntzeko eta lehengoratzeko lanei ekin ahal izango zaie, Getxorako duina den eta zerbitzu berriak dituen eraikin bihurtzeko, besteak beste, mozio honen gorputzean aurkeztutako zerbitzuak.*
*Mozioaren hirugarren puntuari dagokionez, ez dugu beharrezko ikusten sarbide berriak irekitzea, baina bai daudenak egokitzea. Hortaz, hirugarren puntuza ordeztea proposatzen dugu, hurrengoa jarrita:*

*Hirugarrena.- Instalazio horietara sartzeko arazoak handitu egingo direla aurreikusita, egin dadila azterlan bat Bizkerre eta Salsidualde kaleetatik sarbideak egokitzeko aukera baloratzeko edo zubiko lanek irauten duten bitartean oinzubi bat instalatzeko. Hartara, jendea sartu ahal izango da ate nagusitik, korridoretik eta bigarren zenbakiko frontoiko irteeratik".*

Iñaki Gamerok esan du ez lukeela

mesas de los técnios de Getxo Kirolak sin que se adopte ningún tipo de medida y critica la falta de previsión del PNV respecto a los efectos de la obra de URA. Plantea una enmienda trasaccional a la que da lectura:

*"Aunque nos gustan las ideas que propone el Partido Popular para el edifico de frontones, nos parece que estas, y otras que surjan, deben de ser debatidas una por una en el Consejo Rector de Getxo Kirolak, por lo que proponemos sustituir el punto segundo por:*

*Segundo.- Que bajo la supervisión del consejo Recto, se lleve a cabo un estudio detallado de necesidades de mantenimiento y adecuación del edificio de frontones, así cmo de las oportunidades de uso en función de las necesidades, para que, posteriormente se acometan los trabajos de adecentamiento y recuperación de dihcos frontones, para convertilrlo en un edificio digno de Getxo y con los nuevos servicios, como bien pudieran ser, entre otros, los presentados en el cuero de esta moción.*
*En cuanto al tercer punto de la moción, no vemos necesidad de abrir nuevos accesos, pero sí de habilitar los ya existente, por lo que proponemos sustituir el putno tercero por:*

*Tercero.- Que en previsión de los problemas de accso a dichas instalacioines que se van a incrementar, se haga un estudio para valorar la posibilidad de habilitar los accesos de las calles Bizkerre, Salsidualde o de instalar una pasarela mientras dure la obra del puente para que la gente pueda acceder por la puert aprincipal, a través del pasillo y la salida del frontón número dos".*

Iñaki Gamero manifiesta que no tendría

inolako arazorik izango onartzeko, baina, kontuan izanda aurreko zuzenketa transakzionala onartu duela, ez duela oraingoa onartuko, nahiz eta proposamena eskertzen duen.

ningún problema en admitir pero teniendo en cuenta que se ha admitido la anterior enmienda transaccional no va a admitir la presente aunque agradece su propuesta.

Iñaki Amorrortuk jakinarazi du euren zuzenketa transakzionala onartzen bazen aldeko botoa eman behar zutela eta abstenitu egingo zirela ez bazen onartzen, baina iritzia aldatu dutela, Getxo Kirolak erakundearen instalazioak hobetzea babesteko.

Iñaki Amorrortu manifiesta que iban a votar a favor de la moción si se aceptaba su enmienda transaccional y abstenerse si no se aceptaba pero manifiesta que van a cambiar de opinión para apoyar la mejora de las instalaciones de Getxo Kirolak.

Ibon Rodríguezek esan du abstenitzeko asmoa zutela, zioen azalpenean jasotzen denarekin ados badaude ere, ikusten dutelako xedapenen zatia zioen azalpenean planteatzen denera murrizten dela. Hartara, Gobernu Taldea jardungo dela badakitenera mugatzen da, eta, hortaz, iruditzen zaie propaganda egiteko mozioa besterik ez dela. EAJren zuzenketa transakzionalak harritu ditu; izan ere, harekin ados badaude ere, gogora ekarri du Getxo Kirolak erakundeko Artezkaritza Kontseiluak, lehendakariaren erabakiz, mozio honetan ageri diren kontuen gaineko eztabaida saihestu zuela, jarduketen plangintzarako langileen premiekin lotutako kontuetan. Instalazioak hobetzea laguntzeko mozioan abstenitu egingo dira. Aitortu du plangintzarako giza baliabideak ere behar direla, baina ez diote uko egin eztabaida Getxo Kirolak erakundearen Artezkaritza Kontseiluan planteatzeari.

Ibon Rodríguez indica que preveían abstenerse en la propuesta porque, si bien comparten lo que se refleja en la exposición de motivos, observan que la parte dispositiva reduce lo que se plantea en la exposición de motivos, limitándose a lo que ya conocen que se va a actuar por parte del equipo de gobierno, por lo que les parece una moción propagandística. Les ha sorprendido la moción trasaccional del PNV ya que, si bien están de acuerdo con la misma, recuerda que el Consejo Rector de Getxo Kirolak, por decisión del presidente hurtó el debate sobre cuestiones que figuran en esta moción en cuestiones relativas a necesidades de personal para planificación de las actuaciones. Se abstendrán en la moción para apoyar la mejora de las instalaciones y reconoce también que son necesarios medios personales para la planificación pero no renuncian a plantear el debate en el consejo rector de Getxo Kirolak.

José Luis Landak adierazi du, zuzenketa transakzionala Gobernu Taldearena denez, haren aldeko botoa emango dutela. Izan ere, beste kasu batean, ez zuten jatorrizko proposamena sostengatuko, hura aplikatzeak trinketak eta lehen

José Luis Landa indica que como la enmienda transaccional es del equipo de gobierno votarán a favor de la misma porque en otro supuesto no apoyarían la propuesta original debido a que supondría su aplicación la desaparición de los trinquetes y del

zenbakiko frontoia desagerraraztea ekarriko bailuke, eta jarduketa horiekin ez datoz bat. Esku-hartzea amaitzeko, aldarrikatu du Getxon euskal pilota sustatu eta bultzatu behar dela.

frontón nº 1, actuaciones con las que no están de acuerdo. Finaliza su intervención reivindicando la necesidad de impulsar y fomentar la pelota vasca en el municipio de Getxo.

Iñaki Amorrortuk esan du Gobernu Taldearen zuzenketa berrikusi dutela eta abstenitu egingo direla, zuzenketa horrek ez baitio jarraitzen mozioaren hasierako espirituari.

Iñaki Amorrortu dice que han repasado la enmienda del equipo de gobierno e indica que se van a abstener porque dicha enmienda no sigue el espíritu inicial de la moción.

Santiago Sainzek adierazi du aldeko botoa emango duela; izan ere, Getxo Kirolak erakundearen kudeaketa ezagutzen du eta lagundu behar den lan on bat dela uste du.

Santiago Sainz manifiesta que votará a favor ya que conoce la gestión de Getxo Kirolak, que cree que es una buena labor que hay que apoyar.

Iñaki Gamerok denen jarrerak eskertu ditu eta uste du alderdi guztiek hobetu nahi dituztela instalazioak. Pilotalekuei dagokienez, espero du mozioak balio izatea zer egin daitekeen hausnartzeko. Haien ustez, ez dira konponbideak jarri behar bideratzeko lanak egiten diren neurrian, baizik eta aurretik jokatu behar da, aurreratu egin behar da, eta horregatik eskatu dute jarduketak gauzatzeko epeak finkatzeko.

Iñaki Gamero agradece las posiciones de todos y cree que todos los grupos quieren mejorar las instalaciones. Respecto a los frontones espera que la moción sirva para reflexionar qué se puede hacer. No son de la opinión de poner soluciones a medida que se vayan realizando las obras de encauzamiento sino que hay que adelantarse y por eso piden que se fijen plazos para realizar las actuaciones.

Mozioa bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 17 boto –EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos– eta 8 abstentzio –GUK, EH Bildu–.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor; PNV, PP, PSE-EE, Cidadanos; 8 abstenciones, GUK, EH Bildu.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Mozio hau zenbait arazo konpontzeko aurkezten dugu:

Esta moción se presenta con el fin de poder solucionar varios problemas:

1.- Lehenik eta behin, oso garrantzitsua: Gobela ibaia, Faduratik igarotzen den lekuan, bideratzeko egingo diren obrak.

1.- Primero y muy importante; son las futuras obras de encauzamiento que se van a realizar a lo largo del río Gobela, a su paso por Fadura.

Badira urte batzuk, denok dakigunez,

Desde hace años, como todos

ibaiaren ubidean zehar jarduketa batzuk egiten hasi zirela, etorkizunean uholdeak gertatzea ekiditeko, horrek ibaitik hurbil bizi diren pertsonen eta inguruetan dauden ondasunen segurtasuna kaltetu ahalko lukeelakoan. Obra horiek behar-beharrezkoak dira, ezinbestekoak, eta denok nahi dugu lehenbailehen egitea.

Egingo diren jarduketek eragina izango dute Fadurako kirol instalazioen inguruko aldeetan, eta horrenbestez, eskaintzen diren kirol zerbitzu asko desagertu egin daitezke.

Horra hor adibide bat: estali gabeko hiru padel pista, gutxienez, kenduko dira. Desagerpen horrek eragin handia izango du erabiltzaile askorengan, gure udalerrian eskaera handia duen kirola baita. 600 getxotar baino gehiagok ezin izan dituzte egin eskaintzen diren ikastaroak. Gainera, zerbitzu hau ezin zaizkie eman ikastetxeetako ikasleei.

Oso kezkagarria da obra horiek estali gabeko igerilekuetan eragina izatea. Erabiltzaileak toallak zabaldu eta eguzkitan jartzen diren eremuko zati handi bat desagertuko da. Horrek, zalantzarik gabe, jendea pilatzea ekarriko du, eta horregatik oso deserosoa izango da udan igerilekuan erabiltzea.

Gainera, Faduran zubi berria egingo da; beraz, instalazioetan sartzea zailagoa izango da.

Popular Udal Taldeak uste du arazo horiei aurrea hartzea garrantzitsua dela, denon artean konponbideak bilatzeko. Guk ondoko hauek proposatzen ditugu baina, noski, beste edozein hartzeko prest gaude, baldin

conocemos, se están realizando unas actuaciones a lo largo del cauce del río, con el fin de evitar inundaciones futuras que puedan afectar a la seguridad de bienes y personas que viven cerca del río. Estas obras, son muy necesarias e imprescindibles, pues todos queremos que se acometan a la mayor brevedad posible.

Las actuaciones que se van a realizar, van a afectar a las zonas aledañas a las instalaciones deportivas de Fadura, y por tanto muchos servicios deportivos que se ofrecen, pueden desaparecer.

Sirva de ejemplo, que por lo menos tres pistas de pádel descubiertas se derribarán. Dicha desaparición, va a afectar de manera notable a muchos usuarios, pues es uno de los deportes con mayor demanda en nuestro municipio. Más de 600 vecinos no han podido acceder a los cursos que se ofrecen, no siendo posible además, prestar este servicio a los escolares.

Es bastante preocupante, que dichas obras vayan a afectar a las piscinas descubiertas. Va a desaparecer gran parte de la zona de esparcimiento donde los usuarios toman el sol y extienden sus toallas. Esto provocará sin duda, aglomeraciones que harán muy molesto el poder hacer uso de las piscinas en verano.

Además se va a realizar, un puente nuevo en Fadura, con lo que los accesos a las instalaciones se van a complicar.

Desde el Grupo Municipal Popular creemos que es necesario anticiparnos a dichos problemas y entre todos buscar soluciones. Nosotros proponemos las siguientes, aunque lógicamente estamos abiertos a cualquier otra que

eta eraginkorra bada eta kirolariak mesedetzen baditu.

sea eficaz y beneficie a los usuarios deportistas.

Padel pistei dagokienez, frontoien eraikineko frontoi nagusira eraman ahal dira, gaur egun ez baita ia erabiltzen. Hor ia-ia bost padel pista sartu ahalko lirateke, obra handirik eta aurrekontu garestirik egin beharrik gabe.

Respecto a las pistas de pádel, se pueden trasladar al frontón principal del edificio de frontones que ahora apenas se utiliza. En él podrían caber hasta cinco pistas de pádel, y no se necesitarían grandes obras ni grandes presupuestos.

Zailagoa da, ordea, Fadurako igerilekuetako instalazioen arazoa konpontzea, baina uste dugu ondoko futbol zelaiaren zati bat erabil litekeela, behin-behinean, udan.

Más difícil, es resolver el problema de las instalaciones de las piscinas de Fadura, pero creemos que se podría utilizar parte del campo de futbol colindante, de forma provisional en la época de verano.

Fadurako zubia ordezkatzearen ondorioz instalazioetan sartzeko dauden arazoei dagokienez, uste dugu arazoak konpondu ahalko liratekeela baldin eta beste sarrera batzuk irekiko balira, adibidez atletismo pistatik.

Respecto a los problemas de acceso a las instalaciones, por la sustitución del puente de Fadura, creemos que se podrían mejorar si se abren otros accesos, como por ejemplo por la pista de atletismo.

2.- Bigarren arazo bat frontoien eraikinaren egoera da:

2.- Un segundo problema es el estado del edificio de frontones:

Aldagela nagusiak egoera negargarrian daude: ateak apurtuta daude, azulejuak solte, jarlekuak herdoilduta, komunak joan den mendekoak dira... Azaletik txukuntzen saiatu dira baina aldageletan hobekuntza oso txikiak egin dira eta gaur egungo instalazio batzuetarako ez dira egokiak.

Los vestuarios principales están en un estado lamentable, con puertas rotas, azulejos desprendidos, asientos corroídos por el óxido, aseos del siglo pasado. Aunque se ha intentado hacer un lavado de cara, los vestuarios solamente han sido parcheados y su estado continúa siendo impropio de unas instalaciones de hoy en día.

Itoginak etengabeak dira eta kirol asko egitea zailtzen dute, lesionatzeko arriskua sortzen baitute.

Las goteras siguen siendo persistentes, y ponen en peligro la práctica de muchos deportes, pues existe grave riesgo de lesionarte.

Gainera, espazio asko abandonatuta daude eta ez dira erabiltzen: gaur egun dauden egoeran erabili ezinak dira.

También existen grandes espacios abandonados y desaprovechados que a día de hoy, no pueden ser utilizados por los usuarios.

Gure ustez, eraikina konpontzen denean, zerbitzuak gaur egungo beharrizanetara egokitu behar dira, bai erabileran bai segurtasunean. Igogailu bat jarri behar da eta espazioen distribuzioa aldatu behar da, trazatua sinpleagoa eta erosoagoa izan dadin erabiltzaileentzat, azalera gutxiago alferrik galduz espazio itsuetan, inora ez doazen pasilloetan, txoko ilunetan eta abar.

A nuestro entender el arreglo del edificio debe incluir la adecuación del núcleo de servicios a las exigencias actuales, tanto de uso como de seguridad, incorporando un ascensor y modificando la distribución de los espacios para obtener un trazado más simple y cómodo para los usuarios, con menos superficie desperdiciada en espacios muertos, pasillos a ninguna parte, rincones oscuros, etc.

Era berean, itoginak desagertu behar dira. Jatorria bilatu behar da eta konponbiderik egokiena aplikatu.

Asimismo debemos eliminar las goteras. Analizando su origen, y buscando la solución más adecuada.

.- Sarbideen hobekuntza: trinket zaharra sarrerako hall bihurtzea. Altuera hirukoitzeko espazioa izango da. Atzealdeko horman rokodromo bat jarriko da. Tornuak eta harrerako leihoa jartzeko espazio nahikoa egongo da.

.- Mejora de los accesos: transformación del antiguo trinquete en hall de entrada. Será un espacio de triple altura, cuya pared de fondo estará ocupada por un rocódromo, disponiendo de espacio suficiente para la colocación de los tornos y de la ventanilla de recepción.

.- Padel pisten eremua handitzea. Iparraldeko frontoia erabilera askotako zona bihurtzea.

.- Ampliación de la zona de pistas de pádel. Transformación del frontón del lado norte en zona polivalente.

.- Beheko solairuko aldagelak birmoldatzea, barruko patio zaharkitua barne.

.- Remodelación de los vestuarios de la planta baja, incluyendo el decrépito patio interior.

.- Boulder bat jartzea rokodromoan, eta gimnasioetarako edo aretoetarako espazioak, erabileraren premien arabera.

.- Habilitación de un Boulder para el rocódromo, además de espacios para gimnasios o salas a distribuir acorde a las necesidades de uso.

.- Skatepark baterako espazioa, Getxok kirol honetan oso maila altua baitu maila nazionalean.

.- Espacio para un Skatepark, deporte en el que Getxo es puntero a nivel nacional.

Hobekuntza obra askozaz ere gehiago egin litezke, baina uste dugu aipatutakoak eginez gero eraikinari nolabaiteko duintasuna emango

Se pueden realizar muchas obras de mejora más, pero entendemos que con está actuaciones se dignificaría este edificio y se daría un mejor servicio a

litzaiokeela eta erabiltzaileentzako zerbitzua hobetuko litzatekeela.

los usuarios.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten du:

Por todo ello el Grupo Municipal de Partido Popular presenta en el pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Beharrezko neurriak ezartzea Gobela ibaiaren berbideratze prozezuan egin beharreko lanak gutxieneko eragina eukitzea Fadura instalakuntzetan zuzenean edo ez zuzenearn prestatzen edo eskeintzen diren zerbitzuetan. Kirolarien eta orokorrean publioari sarrera errazten.

PRIMERO.- Que se adopten las medidas necesarias para minimizar los efectos de las obras del encauzamiento del río Gobela en todos los servicios e instalaciones de Fadura afectadas directa o indirectamente, facilitando el acceso a los y las deportistas y visitantes en general.

BIGARRENA.- Frontoi, atletismo, rugby eta tenis guneko instalakuntzen planifikazio bat prestatu.

SEGUNDO.- Que se elabore una planificación de las instalaciones y servicios a prestar en toda el área de frontones, atletismo, rugby y tenis.

HIRUGARRENA.- Aurreko puntuak lortzeko beharreko pertsonen eta materialen baliabideak ematea.

TERCERO.- Que se dote a Getxo Kirolak de los medios humanos y materiales que necesite para alcanzar los puntos anteriores.

LAUGARRENA.- Mozio hau udaleko hedabideetan jakinaraztea.

CUARTO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

## 15.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PERISCOPE BIDEZ OSOKO BILKURAK BIRTRANSMITITZEA.

## 15.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA RETRANSMISIÓN DE LOS PLENOS VÍA PERISCOPE.

Eduardo Andradek mozioa irakurri du.

Eduardo Andrade da lectura a la moción.

Paula Amievak zuzenketa transakzional bat aurkeztu eta irakurri du:

Paula Amieva presenta una enmienda transaccional a la que da lectura:

*"Transakzional hau proposatzen dugu, oraingo erabaki-proposamenari gehitzeko:*

*"Proponemos la siguiente transaccional para que se añada la actual propuesta de acuerdo:*

*Lehenengoa.- Udalaren osoko bilkurak bizian eta zuzenean youtube bidez birtransmititzea, aurretik gizarte sareetan zehar berri emanda.*

*Primero.- Retransmitir en directo los plenos municipales vía Youtube y darle previamente difusión en las redes sociales.*

*Bigarrena.- Desgaitasunen bat duten pertsonentzat osoko bilkurak azpititulu eta guzti birtransmititzea, edo eta behar bada, keinu-hizkuntzaz."*

*Segundo.- Que se subtitulen los plenos una vez emitidos para personas con diversidad funcional y/o haya retransmisión del pleno mediante lenguaje de signos."*

Paula Amievak uste du Youtube bidea Periscope baino hobea dela, azken horrek Twitterreko kontu bat izatea eskatzen baitu eta horrek sartzeko aukera mugatzen du. Gainera, Youtuberen aukera hobeak nabarmendu ditu.

Paula Amieva cree que es mejor la vía Youtube que Periscope porque esta última exige tener una cuenta de twitter que limitaría el acceso y destaca las mejores posibilidades de Youtube.

Eduardo Andradek zehaztu du erabaki-proposamenak ez duela mugatzen Periscope sistema erabiltzea, eta adierazi du zuzenketa transakzionala onartu duela eta mozioaren 3. eta 4. puntu gisa sartu duela.

Eduardo Andrade indica que la propuesta de acuerdo no limita que se utilice el sistema de Periscope y que admite la enmienda transaccional incorporándola como puntos 3º y 4º de la moción.

Koldo Iturbek jakinarazi du EAJ abstenitu egingo dela. Proposamen interesgarria iruditzen zaie, baina azterketa teknikoa eskatzen du, eta berretsi du osoko bilkurak bai euskaraz bai gaztelaniaz jarraitu ahal izateko borondatea. Amaitzeko, esan du aztertzen ari dela eta uste duela Udal Erregelamendu Organikoa aldatzean aintzat hartu behar dela kontu hau, zuzenean lotuta baitago herritarren parte-hartzearekin.

Koldo Iturbe indica que el PNV se va a abstener porque les parece una propuesta interesante pero que exige un análisis técnico y se ratifica en la voluntad de que se puedan seguir los plenos tanto en euskera como en castellano. Finaliza informando que están estudiando y cree que en la modificación del ROM ha de tenerse en cuenta esta cuestión por su relación directa con la participación vecinal.

Oier Iturraldek, EH Bilduren izenean, esan du mozioa babestuko dutela, gardentasuna handitzen delako, baina betiere euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuta.

Oier Iturralde, en nombre de EH Bildu, indica que apoyarán la moción porque aumenta la transparencia pero siempre garantizando los derechos lingüísticos de los euskaldunes.

Eduardo Andradek eranzun du ez dagoela ados Udal Erregelamendu Organikoa aldatzearen zain gelditzeko

Eduardo Andrade replica que no comparte el criterio de esperar a la modificación del ROM para

irizpidearekin modernizatzeko eta herritarrek osoko bilkurak jarraitzeko modua izateko. Periscoperen proposamena defendatu du, erraza edo sinplea delako. Are gehiago, eskatua zioten alkateari saio hau hala emateko, izan ere, horretarako, sakelako telefono bat konektatu besterik ez baita egin behar. Baina erantzunik ez dutenez jaso, ez dira bilera ematen ari. Gehitu du erakunde askotan osoko bilkurak ematen dituztela eta haietan euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten dutela eta itzultzaileek euren eginkizunak egiten dituztela. Amaitzeko, zehaztu du planteatu duena berehala jar daitekeela abian eta ez duela zentzurik Udal Erregelamendu Organikoa aldatzearen zain gelditzeak.

modernizarse y que los vecinos puedan seguir los plenos. Defiende su propuesta del Periscope porque es simple y de hecho habían solicitado al Alcalde que esta sesión se retransmitiera, ya que para ello sólo hace falta contectar un movil y como no han tenido respuesta no están retransmitiendo. Informa que en muchas instituciones se retransmiten los plenos y en los mismos se habla en euskera y castellano y los traductores van realizando sus funciones. Finaliza indicando que lo que plantea es algo que se puede poner en marcha de forma inmediata y no tiene sentido esperar a la modificación del ROM.

Teresa Escalantek esan du alderdi sozialistak gardentasunaren eta gobernu irekiaren alde egiten duela. Gogora ekarri du EAJren eta PSE-EEren arteko gobernu akordioak jasotzen duela osoko bilkurak ematea sustatu behar dela eta ez du beharrezko ikusten Udal Erregelamendu Organikoa aldatzearen zain gelditzea.

Teresa Escalante manifiesta que el grupo socialista apuesta por la transparencia y el gobierno abierto y recuerda que el acuerdo de gobierno entre el PNV y el PSE-EE recoge que debe promoverse las retransmisiones de los plenos y no ven necesario esperar a la modificación del ROM.

Paula Amievak azaldu du, hizkuntzez gain, aintzat hartu behar direla dibertsitate funtzionala duten pertsonak. Bere iritziz, ez da beharrezkoa Udal Erregelamendu Organikoa aldatzearen zain gelditzea, ez baita planteatzen herritarrekin interakzioak edo eragin-trukeak izatea, baizik eta herritarrek aukera izatea osoko bilkurak zuzenean ikusteko.

Paula Amieva expone que además de los idiomas hay que tener en cuenta a las personas con diversidad funcional y cree que no es necesario esperar a la reforma del ROM ya que no se plantean interacciones con los vecinos sino que los vecinos puedan acceder a conocer en directo los debates plenarios.

Koldo Iturbek argitu nahi izan du ez dituztela arazoak planteatzen kontu honetan aurrera egiteko ikuspegi teknikotik, baizik eta Udal Erregelamendu Organikoa aldatzearen zain gelditzeko premia.

Koldo Iturbe aclara que no plantean problemas para avanzar en esta cuestión desde el punto de vista técnico sin ncecesidad de esperar a la modificación del ROM.

Mozioa bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 14 boto –PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos– eta 11 abstentzio –EAJ, PSE-EE–.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor: PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Popular Udal Taldeak, mozio honen bidez, getxotar guztiek osoko bilkurak zuzenean ikusi ahal izatea nahi du.

Con la presente moción el Grupo Municipal Popular, quiere que todos los vecinos puedan seguir en directo los Plenos Municipales.

XXI. mendean bete-betean gaudela, eta teknologia berrien gorakada ikusgarria den honetan, Getxoko Partido Popularrek uste du beharrezkoa dela udal hau teknologia berriei egokitzea.

En pleno siglo XXI y con la emergencia tan visible de las nuevas tecnologías, desde el Partido Popular de Getxo creemos necesario que este ayuntamiento se adecue a las mismas.

Twitter sare sozialak azken hiletan zuzeneko bideo-emisioen zerbitzu bat abiatu du, dohainik. Dagoeneko 10 milioi erabiltzailek eman dute izena, 4 hiletan.

La red social Twitter ha puesto en marcha hace meses un servicio de emisión de videos gratuito en directo que ya alcanza los 10 millones de usuarios inscritos en 4 meses.

Horrela, edozein erabiltzailek zuzenean edo livestreaming moduan eman ditzake bere smartphonearekin grabatutako irudiak Periscope-ren beste erabiltzaile batzuentzat.
Eta gainera, Twitter sare sozialean emisioa sustatu ahal da, ikusle gehiago erakartzeko.

Permite a cualquier usuario emitir en vivo o livestreaming las imágenes captadas con su smartphone para otros usuarios de Periscope.
Y también promocionar la emisión en la red social Twitter para atraer a más espectadores.

Periscope-ren abantailak

Ventajas de Periscope

1. Periscope-ren transmisioak Interneteko nabigatzaile batean eta Twitter-en ikus daitezke. Eta integrazio horri esker, sare sozialeko erabiltzaileak zure transmisiora konektatu ahal dira, bistaratzeak biderkatuz.

1. Las transmisiones de Periscope se pueden visualizar tanto en un navegador de internet como en Twitter. Y esta integración permite que los usuarios de la red social también se conecten a tu transmisión, multiplicando así las visualizaciones.

2. Pribatutasuna kontrolatzeko aukera ematen du. Zuzeneko emisioa zure

2. Posibilita el control de la privacidad. Puedes elegir que la emisión en vivo

kontaktuek bakarrik edo jende guztiak ikusi ahal izatea aukeratu ahal duzu.

solo sea visible para tus contactos o el público en general.

3. Streaminga amaitutakoan, bideoa aplikazioan gera daiteke, transmisioa zuzenean ikusi ezin izan duten erabiltzaileek 24 orduko epean ikusi ahal izateko.

3. Al terminar el streaming, el video puede quedar en la aplicación para que los usuarios que no pudieron ver la transmisión en vivo lo hagan en un lapso de 24 horas.

4. Kokapenaren botoiarekin etiketa geografiko bat erantsi ahal diozu zeure bideoari. Eta horrela edukia non sortu den jakin ahal duzu.

4. Con el botón de ubicación puedes ponerle una etiqueta geográfica a tu video. Y este mismo te permite descubrir contenido según el área en el que se creó.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten du:

Es por lo que el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Udaleko osoko bilkurak zuzenean ematea eta aldez aurretik udalaren sare sozialetan zabaltzea.

PRIMERO.- Retransmitir en directo los plenos municipales y darle previamente difusión en las redes sociales del Ayuntamiento.

BIGARRENA. - Mozio honen berri udalerriko komunikabideei emango zaie.

SEGUNDO. - Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

HIRUGARRENA.- Udalaren osoko bilkurak bizian eta zuzenean youtube bidez birtransmititzea, aurretik gizarte sareetan zehar berri emanda.

TERCERO.- Retransmitir en directo los plenos municipales vía youtube y darle previamente difusión en las redes sociales.

LAUGARRENA.- Desgaitasunen bat duten pertsonentzat osoko bilkurak azpititulu eta guzti birtransmititzea, edo eta behar bada, keinu-hizkuntzaz.

CUARTO.- Que se subtitulen los plenos una vez emitidos para personas con diversidad funcional y/o haya retransmisión del pleno mediante lenguaje de signos.

**16.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXON KOMUN PUBLIKOAK EZARTZEA**

**16.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA INSTALACIÓN DE UNA RED DE ASEOS PÚBLICOS EN GETXO.**

Eduardo Andradek mozioa irakurri du.

Eduardo Andrade da lectura a la moción.

Joseba Arreguik, Gobernu Taldearen izenean, adierazi du bat datorrela asmoarekin eta komun publikoen sare bat edukitzea komenigarria dela uste duela, baina, benetakoa izateko, aurrekontuak horretarako aukera eman behar duela, baliabideak izan behar direla. Datuak eguneratu dituzte, *renting* bidez, eta urtean 210.540 euroko inbertsioa ekarriko luke. Ez dute aldeko botoa emango, egun ez dagoelako aurrekontu sailik, alde batera utzirik aurrekontuen negoziazioak ekarriko duena.

Joseba Arregui, en nombre del equipo de gobierno, indica que comparte la conveniencia de disponer de una red de aseos públicos pero para que sea real hacer falta una disponibilidad presupuestaria. Han actualizado los datos vía renting y ello supondría una inversión de 210.540 euros/año. No van a votar a favor porque hoy en día no existe una partida presupuestaria, sin perjuicio de lo que depare la negociación de los presupuestos.

Enrique Pradak adierazi du bere taldea ados dagoela komun publikoen sare bat izatearekin eta duten kostua onartu egin beharko litzatekeela. Uste du egun dauden komunen mantentzea asko hobetu behar dela, eta iradoki dio Gobernu Taldeari egungo egoera baloratzeko eta hobetzeko. Gainera, planteatu dute udal instalazioetako komunak publikoki erabiltzea aztertzea, egin daitekeen kasuetan. Amaitzeko, adierazi du kontu honen gainean hitz egiteko borondatea dutela.

Enrique Prada manifiesta el acuerdo de su grupo con la existencia de una red de aseos públicos que tienen un coste que habría que asumir. Cree que el mantenimiento de los aseos existentes es muy mejorable y sugiere al equipo de gobierno que valore la situación acutal y mejore su estado. Plantean también estudiar el posible uso público de aseos de instalaciones municipales en aquellos casos que sea posible. Finaliza manifestando su voluntad de diálogo sobre esta cuestión.

Eduardo Andradek onartu du kontua diruarekin lotuta dagoela eta jakinarazi du beharrezkoak diren aurrekontu aldaketak babesteko prest daudela. Gehitu du aurreikusitako instalazio guztiak ez direla batera egin behar. Esan du egungo komunen egoera asko hobetu behar dela eta udal taldeen borondatea bilatzen ari direla kontu honetan. Bere ustez, Gobernu Taldea abstenitu egiten bada, jardun gabe jarraituko dute.

Eduardo Andrade reconoce que la cuestión es económica e insiste en que están dispuestos a apoyar las modificaciones presupuestarias necesarias y asume también que no todas las instalaciones previstas se realicen a la vez. Manifiesta que el estado de los baños actuales es muy mejorable y está buscando la voluntad de los grupos municipales sobre esta cuestión y cree que si el equipo de gobierno se abstiene seguirá sin actuarse.

Santiago Sainzek azaldu du mozioaren aldeko botoa emango duela, proposamen hori euren hauteskunde programan jasota baitago.

Santiago Sainz indica que apoyará la moción ya que esa propuesta viene recogida en su programa electoral.

Mozioa bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 14 boto –PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos– eta 11 abstentzio –EAJ, PSE-EE–.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones; PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

2014ko ekaineko osoko bilkuran, PP-ren eta PSE-ren aldeko botoekin, EAJ-ren abstentzioarekin eta Bilduren kontrako botoekin, Partido Popularren proposamen bat onetsi zen, gure udalerrian komun publikoen sare bat jartzen hasteko.

El pleno municipal de Junio de 2014, resultó aprobado con los votos favorables de PP y Pse la abstención del PNV y los votos en contra de Bildu una propuesta del Partido Popular para el inicio de la instalación de una red de aseos públicos en nuestro municipio.

Osoko bilkuran gehiengo osoz onetsi zen arren, ez da ezer egin honi buruz gaur arte. Legegintzaldi berri bat hasita eta gure osoko bilkuren aretoan talde politiko berriak egonik, uste dugu berriro ere gure ordezkari politikoek euren jarrera agertu behar dutela gai honi buruz, getxotarrentzat arazo garrantzitsua delakoan.

A pesar de ser aprobado por la mayoría absoluta del pleno, nada se ha hecho a este respecto hasta la fecha. En una nueva legislatura y con nuevas formaciones políticas en nuestro salón de plenos, consideramos importante un nuevo posicionamiento de nuestros representantes políticos sobre este asunto que consideremos importante para nuestros vecinos.

Popular Udal Taldean uste dugu gure parke, lorategi eta umeentzako jokalekuen sare zabalak gabezia larri bat daukala: komun eta pixaleku publikoak.

Desde el Grupo Municipal Popular consideramos que nuestra extensa red de parques, jardines y juegos infantiles tienen una grave carencia, la de unos aseos y urinarios públicos.

Gaur egun zerbitzu hori Areetako Kaiko pasealekuaren amaieran bakarrik daukagu, Aixerrotako errotaren ondoan, eta finko geratzen direnak, adibidez Ereagako hondartzakoa eta Bizkaia Zubikoa, baita sasoikoak ere, Areetako eta Arrigunagako hondartzetan. Gure ustez instalazio horiek ez dira egokiak ez nahikoak.

Actualmente sólo contamos con este servicio en el final del paseo del Muelle de Las Arenas, junto al molino de Aixerrota y los que quedan fijos como los de la Playa de Ereaga y del Puente Colgante, así como los de temporada en las playas de Las Arenas y Arrigunaga, a nuestro entender unas instalaciones deficientes e insuficientes.

Popular Udal Taldean uste dugu ezinbestekoa dela, ahalik eta arinen, komun publikoen sare bat jartzea udalerriko hainbat lekutan. Hori

Desde el Grupo Municipal Popular consideramos imprescindible acometer, sin retrasos, la instalación de una red de aseos públicos en diferentes áreas del

egiteko zenbait modu daude.

municipio ya que existen diferentes formas de acometerlo.

Beste udalerri batzuek arazo hori konpondu dute, horrelako zerbitzuak jarriz, adibidez Bilbon, Santanderren, Gijonen, Irunen eta abar.

Otros municipios ya han dado solución a este problema con la instalación de este servicio como son Bilbao, Santander, Gijón, Irún, etc.

Guk proposatzen dugu honelako komunak udalerriko HAMAR parke eta lorategitan jartzea hasiera batean. Zehazki, Zugazarteko pasealekuan, Areetako eta Algortako geltokietako plazetan, Txabarri Zuazo, Usategi, Aldapa, Borobia eta Maidagan parkeetan, Santa Ana Plazan, eta Galeako edota Azkorriko aparkalekuetan.

Nosotros consideramos necesario y proponemos el establecimiento de estos aseos de forma inicial en DIEZ parques y jardines del municipio, en concreto, se plantea ubicar los aseos en el paseo de Zugazarte, la Plaza de la Estación de las Arenas y de Algorta, en los parques de Chabarri Zuazo, Usategui, Aldapas, La Borobia y Maidagan así como en la plaza de Santa Ana y en el aparcamiento de La Galea y/o Azkorri.

Kokaleku horiek ez dira derrigorrak baizik eta gutxi gorabeherakoak, eta gure proposamena hobetzen duen edozein proposamen entzuteko prest gaude; garrantzitsuena zerbitzu hau eskaintzen hastea da.

Estos emplazamientos no son obligatorios, sino orientativos y estamos abiertos a cualquier propuesta que pueda mejorar nuestra propuesta, lo importante es comenzar su instalación.

Partido Popularren prest gaude gure parke eta pasealekuetan pixalekuak eta komunak jartzen hasteko behar den aurrekontu-partida onartzeko.

Desde el Partido Popular estamos dispuestos aprobar la partida presupuestaria necesaria para el comienzo de la instalación de urinarios y aseos en nuestros parques y paseos.

Horregatik guztiagatik, Popular Udal Taldeak ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten du:

Por todo ello el Grupo Municipal de Partido Popular presenta en el pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Lehenbailehen komun publikoen sare bat jar dadila gure parke eta lorategietan, arestian aipatutako kokalekuak erreferentzia legez hartuta.

PRIMERO.- Que a la mayor brevedad, se proceda a la instalación de una red de aseos públicos en nuestros parques y jardines, sirviendo de referencia las ubicaciones antes referenciadas.

BIGARRENA. Mozio honen berri emango zaie udalerriko komunikabideei.

SEGUNDO. Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**17.- GUK ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SOINU-MAILA ONARGARRIAK DITUEN ETA KUTSADURA GUTXIAGO DUEN GETXO BATEZ.**

Iñaki Amorrortuk mozioa irakurri eta adierazi du badakitela Udalak ibilgailu elektrikoak dituela, baina ez Udaltzaingoan, eta haiek dira kilometro gehien egiten dituztenak. Bere ustez, Gobernu Taldea ez da ari kontu honi seriotasunez heltzen, eta beraiek prest daude hobetzeko eta, hartara, aurrera egiteko. Uste du mozioa ia-ia berehala jar daitekeela martxan.

Miguel Ibabek adierazi du Alderdi Popularra bat datorrela mozioko hainbat pasarterekin, baina zehaztu du herrialdearen izeneko akordioak Espainiako Gobernuak sinatzen dituela eta akordio horiek betebeharrak ere badituztela (zehaztu egin ditu betebehar horiek). Zeregin konplexua da, Espainiako Gobernua eta autonomia erkidegoak eta haiek eta udalerriak batera jardutea eskatzen duena. Nabarmendu du egin beharrekoa GUK taldeak proposatzen duena baino askoz ere konplexuagoa dela. Bere ustez, lehenbizi egin beharrekoa mugikortasun iraunkorreko plan bat litzateke, eta hark barnean hartu beharko luke ibilgailuak ordezteko prozesu bat. Energia guztia berriztagarria izateko proposamenari dagokionez, esan du, adierazpen gisa, oso ondo dagoela, baina ez dela zehazten zein motatako energia berriztagarria izango den ez eta zein iturritatik lortuko den ere. Gainera, galdetu du zergatik planteatzen den Udaltzaingoaren ibilgailu bakarra ordeztea eta ez laurak eta zergatik ez den planteatzen kontu hau zaborrak biltzeko kamioien gainean. Amaitzeko,

**17.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/UN GETXO MENOS CONTAMINADO Y CON NIVELES SONOROS MÁS ACEPTABLES.**

Iñaki Amorrortu lee la moción e indica que conocen que el ayuntamiento dispone de vehículos eléctricos pero no en la Policía Municipal que son los vehículos con mayor kilometraje. Cree que esta cuestión no se está abordando con seriedad por el equipo de gobierno y que están abiertos a mejorar para avanzar más. Opina que la moción puede ser puesta en marcha de manera prácticamente inmediata.

Miguel Ibabe indica que el grupo popular comparte párrafos de la moción pero puntualiza que los acuerdos en nombre del país los firma el gobierno de España y que dichos acuerdos tienen también obligaciones que pasa a detallar y que supone una tarea compleja que exige una acción conjunta entre el gobierno de España y las Comunidades Autónomas y entre éstas y los municipios. Recalca que lo que hay que hacer es mucho más complejo que lo que propone GUK. Cree que lo primero es abordar un plan de movilidad sostenible que debiera incorporar un proceso de sustitución de vehículos. Respecto a la propuesta de que toda la energía sea de origen renovable manifiesta que como declaración queda muy bien pero que no se especifica qué tipo de energía renovable ni de que fuentes se va a conseguir. Pregunta también por qué sólo se plantea la sustitución de un vehículo de la Policía Municipal y no los cuatro o por qué no se plantea esta cuestión en los camiones de recogida de basuras. Finaliza indicando que actuar razonablemente exige realizar previamente un estudio como el que ha

gaineratu du arrazoiz jokatzeak eskatzen duela berak adierazitakoa bezalako azterlan bat egitea aurretik eta GUK taldeak gai serioei funsgabe heltzen diela. Ondorioz, irrigarri gertatzen dira eta, beraz, beraiek kontrako botoa emango dute.

indicado y que GUK los temas serios los aborda de forma inconsistente, lo que hace que sean ridículos, por lo que votarán en contra.

Santiago Sainz bat dator mozioaren espirituarekin, baina Iñaki Amorrorturen iritziaren aldaketak zalantzak eragiten dizkio. Izan ere, iraileko osoko bilkuran adierazi zuen egun ezinezkoa dela bermatzea energiaren ehuneko ehun berriztagarria izatea, eta, hortaz, mozioaren testuarekin alderatuta, kontraesana dakar. Gaineraturik esan du, ezen %100 adinako energia berriztagarria udalerriarentzat eta udaleko bulegoentzat lortzea gaur-gaurkoz ezinezkoa dela, eta hargatik mozioari egin ezindakoa deritza. Espainiak iazkoan, 2014an, ekoiztuta guztira lortu duen energia berriztagarria %42,8 adinakoa da guztira; aurtengoan, 2015ean, aldiz, ekitaldia bukatu orduko %37,4 adinakoa bakarrik. Ez dago asmo ez xede idealik lortzerik, lortu nahi dena gutiziagarri bada ere, ez, burutsu behar dugu izan eta gizarteko helburuetara begira gaudela moldatu. Lortu behar duguna, energia baliagarria Espainian 2020 urterako %20 adinakoa izatea da, 2009ko apirilaren 23ko 2009/28/CE zuzentarauaren esanetara. Mozioa adierazpen politikotzat hartu du eta hori dela eta, babestu egingo du.

Santiago Sainz comparte el espíritu de la moción aunque le genera dudas el cambio de opinión de Iñaki Amorrortu, ya que en el Pleno de septiembre manifestó que hoy por hoy no es posible garantizar que el cien por cien de la energía sea renovable, lo que contradice el texto de la moción. Indica que lo de conseguir un 100% de energía renovable para la ciudad y dependencias municipales es del todo imposible a día de hoy, por ello se antoja inviable la moción. España ha logrado el pasado 2014 producir el 42,8% de energía total en renovables y hasta el cierre del ejercicio de 2015 se lleva un 37,4%. Lo que hay que buscar no es ese objetivo ideal y a todas luces deseables que se pretende, sino ser sensatos y adecuarnos a los objetivos comunitarios y hacer que la energía útil llegue a suponer en 2020 el 20% en España, según la directiva 2009/28 CE de 23 de abril de 2009. Toma la moción como un pronunciamiento político y por ello la apoyará.

José Luis Landak adierazi du mozioaren filosofiarekin bat datozela, berotze globalari aurre egitea baitakar, eta gehitu du urteak direla Udala norabide horretan lanean ari dela. Hain zuzen, webguneko datuak aipatu ditu, ingurumenaren atalekoak, ingurumen foroaren gomendioei jarraitzen baitiete.

José Luis Landa manifiesta que comparten la filosofía de la moción que supone enfrentarse al calentamiento global e indica que desde hace años el ayuntamiento trabaja en ese sentido y se remite a los datos de la página web en el apartado medioambiental que sigue las recomendaciones del foro de

Alde erabakigarriari dagokionez, adierazi du ibilgailu elektrikoen autonomia ez dela nahikoa Udaltzaingoak dituen beharretarako. Gogora ekarri du zaborrak biltzeko zerbitzuek eta lorezainenek ibilgailu elektrikoak eta gas bidezkoak dituztela. Gehitu du, erosterakoan, ibilgailu elektrikoak %40 garestiagoak direla eta erabiltzen duten energia ere zertxobait garestiagoa dela. Iñaki Amorrorturi irailean egin zituen adierazpenak ekarri dizkio gogora, aurkeztutako mozioarekin alderatuta kontraesana dakartelako, eta, amaitzeko, esan du Gobernu Taldea abstenitu egingo dela.

medio ambiente. En relación a la parte resolutiva indica que la autonomía de los vehículos eléctricos no es suficiente para las necesidades de la Policía Local. Recuerda que los servicios de recogida de basuras y jardineros cuentan con vehículos elécticos y de gas. Indica que los vehículos eléctricos son un 40% más caros en adquisición y también es algo más cara la energía que utilizan. Recuerda a Iñaki Amorrortu las declaraciones que realizó en el mes de septiembre, como contradicción con la moción presentada, manifestando finalmente que el equipo de gobierno se abstendrá.

Iñaki Amorrortuk kargu hartu dio Alderdi Popularreko zinegotziari, egindako adierazpenetan erabilitako doinuarengatik, iruditzen baitzaio osoko bilkura batean ez dela onargarria. Bere ustez, ez du mozioa irakurri, proposatzen dena ez baita udaltzainentzat ibilgailu elektriko bat erostea; gutxienez, bat baizik. Testua idatzi dute Gobernu Taldeak mozioa babestea errazteko. Gehitu du ez dela beharrezkoa aipatzea zein energia berriztagarri mota erabiliko litzatekeen, energia berriztagarriak energiak denak hartzen baititu. Berriro esan du asmoa dela proba pilotu bat egitea zehatz-mehatz jakiteko zein emaitza ematen duen eta gaineratu du Portugaleten ibilgailu elektriko bat eskuratu dutela udaltzainentzat. Amaieran, esan du mozioa gauzatzea erraza dela; izan ere, lehenbiziko puntua lor daiteke hornidura elektrikoaren kontratua aldatuta. Eta irailean esan zuenari dagokionez, berretsi egin du, baina kontua konponduko da energia berriztagarriaren hornidura hornitzaileari eskatzen bazaio.

Iñaki Amorrortu llama la atención al concejal del PP por el tono que ha utilizado en las manifestaciones vertidas que le parece que no son admisibles en un pleno. Cree que no se ha leído la moción ya que la propuesta no es comprar sólo un vehículo eléctrico para la policía sino al menos uno y el texto se ha redactado para facilitar que el equipo de gobierno apoye la moción. Manifiesta que no hace falta mencionar qué tipo de energía renovable se utilizaría ya que la energía renovable engloba a todas. Insiste en que la idea es hacer una prueba piloto para saber exactamente qué resultado da y comenta que en Portugalete se ha adquirido un vehículo eléctrico para la Policía Municipal. Finaliza indicando que poner en práctica la moción es sencillo ya que el punto primero se resuelve modificando el contrato de suministro eléctrico y respecto a lo manifestado en septiembre se ratifica pero la cuestión se resuelve si solicita el suministro de energía renovable al proveedor.

Miguel Ibabek erantzun dio ez diola begirunea galdu, ez edukiari ez

Miguel Ibabe replica que no ha faltado al respeto ni en el contenido ni en las

moduari dagokionez. Gehitu du mozioaren aurrekarietako paragrafo batzuekin ados daudela, baina ezin dela osoko bilkurara etorri kea saltzera edo proposamen demagogikoak egitera.

formas y mantiene que comparten párrafos de los antecedentes de la moción pero no se puede venir al Pleno a vender humo o con propuestas demagógicas.

Iñaki Amorrortuk uste du PPrentzat ez dela garrantzitsua Getxoko energia guztia iturri berriztagarrietakoa izatea lortzea horretarako hornitzaileari deituta. Eta ez dute ikusten mozioan planteatzen dena zein zentzutan joan daitekeen egingo den plan baten aurka.

Iñaki Amorrortu cree que para el PP conseguir que la energía de Getxo sea toda de fuentes renovables llamando para ello al suministrador no le parece algo importante y no ven lo que se plantea en la moción en qué sentido pueda ir contra ningún plan que se vaya a realizar.

José Luis Landak esan du telefono dei bakar bat eginda ez dela aldatzen indarrean dagoen kontratu bat. Ibilgailuak Udaltzaingorako autonomiarik ez izateari dagokionez, autogileak berak egiaztatutako kontua da, eta gehitu du Portugaletek Getxok baino lurralde eremu askoz ere txikiagoa duela.

Jose Luis Landa manifiesta que con una sóla llamada telefónica no se modifica un contrato vigente. En relación a la falta de autonomía del vehículo para la Policía Municipal es algo acreditado por el propio fabricante, a la vez que indica que Portugalete tiene una extensión territorial mucho menor que Getxo.

Mozioa bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 8 boto –GUK, EH Bildu–, aurkako 5 boto –PP– eta 12 abstentzio –EAJ, PSE-EE, Ciudadanos–.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 8 votos a favor GUK, EH Bildu; 5 votos en contra, PP; 12 abstenciones, PNV, PSE-EE, Ciudadanos.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Berotze globalaren mehatxuaren aurrean, bide berriak hartu behar ditugu berehala gure planeta defendatzeko.

La amenaza del calentamiento global nos tiene que mover a tomar de inmediato nuevas vías para defender nuestro planeta.

Horretarako, planeta berotzen duten iturriak deuseztatu behar ditugu pixkanaka, besteak beste, barne errekuntzako motor termikoak, erregai fosilak erabiltzen dituztenak. Horrela, ondorioak azkar ikus daitezke.

Eliminar poco a poco las fuentes de calentamiento del mismo, como pueden ser la provocada por las motos térmicas movidas por motores de combustión interna alimentadas por combustibles fósiles, puede ser una medida con efectos rápidos.

Orain dela gutxi Parisen egindako klimaren goi bileran, Espainiako Estatuko ordezkariek hitza eman zuten publikoki 2030. urtean Espainiako errepideetatik zirkulatuko duten ibilgailuen % 20 elektrikoak izango direla.

Pariseko goi-bilerara joan da Urkullu lehendakaria eta bertan estaturik gabeko lurraldeei buruz mintzatu da. Bilera hori ez da Getxoko errealitatean eraginik ez duen zeremonia bat, guztiz kontrakoa baizik. Izan ere, goi-bilera hori deialdi bat izan behar da; horrela, tokian tokiko ekimenak abiarazi behar dira, planetak osasuntsu eta indartsu izaten jarrai dezan. Planeta hori izango da ondorengo belaunaldiei utziko dieguna.

Getxo, Bizkaiko udalerri garrantzitsuenetariko bat den aldetik, klima aldaketaren aurkako borrokaren ahaleginean ezin da kanpoan geratu, eta are gutxiago atzean geratu parke mugikor ekologikoago bat garatzeko bidean, alderantziz baizik. Guztiok nahi dugu Getxo eredugarria izan dadin alboko gainerako udalerrietarako eta, horretarako, udaleko parke mugikor guztia ibilgailu elektrikoekin berritu egin behar da; azken horiek zeregin berberak beteko dituzte, kutsadurarik sortu gabe, gainera (ingurumenekoa eta akustikoa).

Garrantzi eta kostu horretako proiektu bat, normala denez, ezingo zen jorratu dagokion proba piloturik gabe. Getxoko GUK taldetik proba pilotu horrek gutxienez urtebete irauteko proposatzen dugu, eta proba hori egin ostean, txosten bat egin dadila; haren barnean, honako alderdi hauek sartuko dira: teknologia horren aldeko eta aurkako puntuak, kontsumoak, aurrezteak, kargatzeko puntuetarako

En la reciente Cumbre del Planeta de París, los representantes del Estado español se han comprometido públicamente a que para el año 2030 un 20% de los vehículos que circulen por sus carreteras sean eléctricos.

No podemos entender la Cumbre del Planeta de París, a la que ha acudido el Lehendakari Urkullu para hablar en nombre de los territorios sin estado, como una ceremonia ajena a la realidad de Getxo, sino más bien al contrario, esta Cumbre debe enmarcarse como un llamamiento a que se pongan en marcha iniciativas a nivel local que ayuden a preservar el Planeta sano y vigoroso que algún día legaremos a las generaciones venideras.

Getxo, siendo como es, uno de los municipios más importantes de Bizkaia, no debe quedarse al margen de los esfuerzos en la lucha contra el cambio climático, ni mucho menos rezagado en el caminar hacia un desarrollo de parque móvil más ecológico, sino todo lo contrario; todas y todos deseamos que Getxo sea un ejemplo a seguir para el resto de municipios vecinos y para ello, creemos que la totalidad del parque móvil municipal debe de ser renovado por una flota de vehículos eléctricos que realicen las mismas labores pero sin emitir contaminación, ni ambiental ni acústica.

Lógicamente un proyecto de esta envergadura y coste, no debería ser abordado sin su correspondiente prueba piloto. Desde GUK Getxo proponemos que esta prueba piloto tenga una duración mínima de un año, y que posteriormente a la misma se redacte un informe en el que se incluyan los pros y los contras de esta tecnología, consumos, ahorros, lugares óptimos para los puntos de recarga, así

toki egokiak eta udaleko teknikariei egokia iruditzen zaien informazio guztia; finean, goian aipatutako proiektua arrakastatsua izateko balioko duen txostena.

como toda la información que los técnicos/as del Ayuntamiento consideren oportuna; en definitiva, un informe que sirva como base para llevar a cabo de forma exitosa el proyecto arriba mencionado.

Bestalde, epe laburrean har daitezkeen neurri garrantzitsuak daude, udaleko lokaletako nahiz argiteria publikoko hornidura elektrikoko kontratua aldatzea, esate baterako; hala, Getxoko Udalak erabilitako energia elektrikoa jatorrian % 100 berriztagarria dela ziurtatu ahalko da.

Por otra parte existen medidas importantes que se pueden tomar a corto plazo, como por ejemplo modificar el contrato de suministro eléctrico tanto de las dependencias municipales como del alumbrado público, de forma que se pueda certificar que la energía eléctrica utilizada por el Ayuntamiento de Getxo es de origen 100% renovable.

Uste dugu Getxoko Udalak ezin duela eta ez duela atzean geratu behar planeta ekologikoago bat, gutxiago kutsatutakoa, lortzeko bidean; horregatik, GUK talde politikoak osoko bilkura honi ondorengo proposamena aurkezten dio eztabaidatu eta onartu dadin:

Creemos que el Ayuntamiento de Getxo no puede y no debe quedarse atrás en el caminar hacia un planeta más ecológico y menos contaminado y es por esto que el grupo político GUK, eleva ante este pleno para su debate y aprobación la siguiente propuesta de acuerdo:

1.- Getxoko Udalak beharrezko izapideak egin ditzala udaleko lokaletan nahiz argiteria publikoan kontsumitutako energia elektriko guztia berriztagarria izan dadin, eta dagokion ziurtagiria udalaren webgunean zintzilika dadila.

1- Que el Ayuntamiento de Getxo realice los trámites necesarios para que toda la energía eléctrica que se consume tanto en las dependencias municipales como en el alumbrado público sea de origen renovable y que se cuelgue el certificado correspondiente en la página web del Ayuntamiento.

2- Aurten Udaltzaingoaren parke mugikorra berritzeko udalak erosiko dituen lau ibilgailuetatik bat behintzat, % 100 elektrikoa izan dadila.

2- Que como mínimo, uno de los cuatro nuevos vehículos que el Ayuntamiento va adquirir para renovar el parque móvil de la policía local durante este año, sea 100% eléctrico.

3- Udaltzaingoaren aparkalekuan kargatzeko puntu bat gutxienez jar dadila (edo udaleko teknikariek egokiena iruditzen zaien tokian), eta % 100 berriztagarria den elektrizitatea hornitu dezala.

3- Que se instale un mínimo de un punto de carga en el parking de la Policía Municipal (o donde los técnicos/as del Ayuntamiento consideren más oportuno) y que también suministre electricidad de

origen renovable 100% garantizado.

4- Ibilgailuak erosi aurretik eta ahalik eta lasterren, Energiaren Euskal Erakundeari dagokion diru-laguntza eskatu dadila.

4- Que previamente a la adquisición del/los vehículo/s y a la mayor celeridad posible, se solicite la subvención correspondiente al Ente Vasco de la Energía.

5- Urtebeteko epea amaitzean, txosten bat idaztea, eta mozio honen azalpen zatian aipatutako informazioa eta helburuak jasoko dira bertan.

5- Que al finalizar un período de un año se proceda a la redacción de un informe que contenga la información y objetivos mencionados en la parte ex positiva de la presente moción.

6- Txosten hori eta proiektuaren bideragarritasuna aztertu ostean, Getxoko Udalak ondorengo konpromisoa hartu dezala: parke mugikorrean egindako berritze guztiak kutsagarriak ez diren ibilgailuekin egitea.

6- Que una vez analizado este informe y la viabilidad del proyecto, el Ayuntamiento de Getxo se comprometa a que todas las renovaciones que se hagan en su parque móvil sean por vehículos no contaminantes.

Ibon Rodríguezek justifikatu du bere babesa mozioaren helburua aintzat hartuta. Dena den, kritikatu du halako gai garrantzitsu bat publizitatea egiteko erabiltzea; izan ere, bere ustez lan handiagoa egin behar da mozioa irakurtzean sortzen diren zalantzak argitzeko. Bere iritziz, benetako akordioak lortzeko, gaiak beste modu batera landu behar dira.

Ibon Rodríguez justifica su apoyo por la finalidad de la moción aunque critica que un tema importante como este se utilice para buscar titulares, ya que hay que trabajar más para aclarar dudas que surgen de la lectura de la moción. Manifiesta que para buscar verdaderos acuerdos es necesaria otra forma de trabajar los temas.

**18.- GUK ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ROMOKO NAGUSIEN ETXEAREN ETORKIZUNAREN GALDEKETA.**

**18.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK S/LA CONSULTA SOBRE EL FUTURO DE LA NAGUSIEN ETXEA DE ROMO**

Enrique Prada jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

Enrique Prada da lectura a la siguiente moción:

